



Denbora-



1 Osatu irudia

Ikerrek bitxilore ederra oparitu dio Juleneri. Irudian, baina, erdia falta zaigu, eta ez dauka kolorerik. Osa eta apain ezazu kolore biziz!







3 Puzzleak

Inork baino azkarrago osatzen ditu puzzleak Oihanek. Gaurkoan, baina, kostatzen ari zaio aurrean duzuna amaitzea. Lagunduko al diozu?



2 Zer dago soberan?

Marrazkiak egiten ibili ginen atzo arratsaldean. Lau egin genituen, baina batek ez dauka gainontzekoekin zer ikusirik. Zeinek?



-pasak

Erantzunak: **2.-** Goxkia, **3.-** a. **4.-** Jasan-Pairatu / Zeken-Zikoitz / Urritu-Gutxitu / Akusazio-Salaketa / Lerro-Kirten. **5.-** F. Alonso-Renault / S. Vettel-Red Bull / Raikkonen-Ferrari / J. Button-Brawn GP.



4 Sinonimoak

Hamar goxoki ditugu eskuartean, eta binaka jarri behar ditugu.

Begiratu ondo hitzei, eta sinonimoak topatuz egin bikoteak!

5 Sagu jakintsua

Ziur abiadura zaleak zaretela. Eta ziur behin edo behin ikusiko zenutela 1 Formulako lasterketaren bat. **Ea** gai zareten pilotu bakoitzaren izena bere autoarekin lotzeko!



F. ALONSO
S. VETTEL
RAIKKONEN
J. BUTTON

FERRARI
RENAULT
BRAWN GP
RED BULL



Dragoi txinatarra

Sekula ikusi al duzue dragoi txinatar bat? Kolore biziak izaten ditu, eta jendeak mugitu ohi du aurrera eta atzera. Jolas honetan dragoiaren isatsa harrapatu beharko dugu.

1 Zortzi lagun edo gehiago bildu behar ditugu jolas egiten hasi aurretik. Ondoren, ilara batean jarrita dragoi bat osatuko dugu. Nola? Aurrean dugun lagunari gerritik helduz.

2 Jokoa ezin dugu inolaz ere ilaratik askatu.

Lagunari eutsita egon beharko dugu derri gorrean.

3 Behin dragoia osatuta, ilarako lehenengo laguna dragoiaren burua izango da. Azkena, berriz, isatsa.

4 Dagoeneko prest gaude jolas egiteko. Zer egin behar da, baina?

Lehenengoak ilarako azkeneko laguna harrapatu beharko du.

5 ilarako azken laguna harrapatzean, hots, isatsari heltzea lortzen duenean, bera jarriko da azken lekuan. Behin eta berriz errepikatuko dugu gauza bera.